



ABALTZISKETA

2017KO EKAINAREN 1EKO OHIKO BILKURAKO AKTA

Organoa: Abaltzisketako Osoko Bilkura.

Lekua: Abaltzisketan

Ordua: 19:00etan

Deialdia: Lehenengoa

Bildutakoak: Jon Zubizarreta. Alkatea

Aritz Garmendia. Zinegotzia

Adur Gorostidi. Zinegotzia

Jose M^a Egunez. Zinegotzia

Mikel Senperena. Zinegotzia

Kepa Gorostidi. Zinegotzia

Idazkaria: Nekane Lopetegi

GAI ZERRENDA

1. 2017-03-30eko Bilkurako akta onartzea hala balegokio.
2. San Juanetako jaien batzordeari, jaiak antolatzeko dagokion dirulaguntza onartzea.
3. 2016ko kontu orokorrari onarpena ematea.
4. Juan Jose Lopetediren lizentzia aztertu eta dagokiona erabaki.
5. Ñañarriren esleipena proposamena onartzea.
6. Ñañarriren exekuzio proiektua gauzatzeko akordioa onartu eta berau finantziatzeko aurrekontuari dagokion kreditua onartzea.
7. Tolosaldeko Ataraiaren hitzarmena onartzea.
8. Aralar Bizirik izenean aurkeztutako mozioa aztertu eta dagokiona erabaki.
9. 2017 urterako malloko larren prezioak erabaki.
10. Foru aldundiko ordezkarien erroldako datuak jasotzeko D-7 eranskina onartzea.
11. 2017ko 1. seilabeteko zabor erroldari onarpena ematea.
12. Alkateak onartutako ebazpenen berri ematea:
2017-12: Martxoko faktura.
2017-13: Plusvalía.



ABALTZISKETA

- 2017-14. 2018 urterako jai eguna.
- 2017-15: apirileko faktura.
- 2017-16: ibilgailu hobaria.
- 2017-17: Ttan Ttakun aisialdia.
- 2017-18: Arnastu euskara dirulaguntza.
- 13. Herriko jaietarako proiektorea eta pantalla alokatzea onartzea.
- 14. Altsatsuko atxiloketaren ondorioz, hainbat erakunde eta partaideek luzatutako mozioa aztertu eta dagokiona erabaki.
- 15. Galderak eta Eskakerak

1- 2017-03-30KO BILKURAKO AKTA ONARTZEA HALA BALEGOKIO

Alkateak bilerari hasera eman ondoren, 2017-03-30eko Bilkurako aktaren izenburuak irakurtzeari ekiten zaio. Bertan, hitzez hitz irakurtzen ez bada ere, izenburuak komentatu eta laburtzen dira. Mahaikideen aldetik aurkakorik esan ez denez, dagoen bezala onartutzat eman da.

2- SAN JUANETAKO JAIEN BATZORDEARI, JAIK ANTOLATZEKO DAGOKION DIRULAGUNTZA ONARTZEA.

2017 urteko San Juan jaiak antolatzeke lanari, urtero bezala, batzordeak ekin dio eta jaien egitarau zirriborroa ere prestatua dutela jakitera eman da.

2017 urteko aurrekontua onartu zenean, herriko San Juan jaietarako 6.600,00 eurotako aurreikuspena egin dago. Hauetatik, 6.000,00 euro San Juan jaietarako eta 600,00 San Pedro jai egunerako.

2016 urtean, batzordeari 6.000,00 eurotako laguntza eman zitzaion eta San Pedro egunerako 550,00 euro lagundu zen.

2017 urteko aurrekontuaren berri oraindik ez izan arren, hiru egun direla ikusita, iaz bezala, aurten ere 6.000,00 eurotako laguntza ematea proposatu da. Eta San Pedro egunerako, iaz bezala, 550,00 euro laguntzea proposatu da.



ABALTZISKETA

Aho batez, mahaikideek ERABAKI DUTE:

1. 2017 urterako San Juan jaiak finantzatzeko 6.000,00 euroko laguntza batzordeari onartzea.
2. 2017 urterako San Pedro jai egunerako 550,00 eurotako laguntza onartzea.

3- 2016KO KONTU OROKORRARI ONARPENA EMATEA.

Ikusirik 2016 ekitaldiko Abaltzisketako Udaleko Kontu Orokorra 15 lanegunetz jende aurrean jarri dela, bere iragarkia Udaleko Iragarki Taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, edonork aztertu eta egoki zituen alegazioak aurkeztu zituzan.

Ikusirik 2017ko maiatzaren 24ean argitaratu dela iragarkia GAO-n eta jendaurreko epea ireki dela 2017ko maiatzaren 24tik ekainaren 15era bitartean, biak barne. Eta jendaurreko denboraldian alegazirik tarteratu ezean, behin betikotzat onartuta emango da erabaki berririk hartu beharrik gabe.

Ikusirik Udaleko Idazkariak Kontu Orokorrari buruz egin duen txostenean dioena.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez, ondorengo,

ERABAKITZEN DUTE:

LEHENA.- Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Toki Ogasunen Aurrekontuari buruzkoak, xedatutakoarekin bat etorriz Abaltzisketako Udaleko 2016 ekitaldiko Kontu Orokorrari behin betiko onespenu ematea.

BIGARRENA.- Akordio honen berri Herri Kontuen Euskal Epaitegiari ematea.



ABALTZISKETA

4- JUAN JOSE LOPETEDIREN LIZENTZIA AZTERTU ETA DAGOKIONA ERABAKI.

Juan Jose Lopetedi Jaunak, Zubeldi Barrena baserriaren lursaileetan, eta zehazki 4 poligonoko 110, 111 eta 112 lursaileetan egokitzapenak egin nahi dituela adierazten du, eta horretarako ondorengo dokumentazioa aurkezten du :

- Lursailaren egokitzapena jasotzen duen proiektua, dagokion teknikoak eta elkargo ofizialak sinatua.
- Jarduera eremuaren kokapen zehatza eta errekaetoaren ondotik duen distantziak jasotzen duen plano

Eskaera honen inguruan, Udaleko idazkariak honako txostena luzatu du:

TXOSTENA

LEHENENGOA. ESKAERAREKIN HASTE, ETA ESKAERA EGOKI ETA NAHIKO IZATEA

Goiburukoan adierazi den hirigintza-lizentziaren prozesua hasi zen 2017eko martxoaren 2ean gure udaleko erregistro orokorrean eskaera aurkeztu ondoren.

BIGARRENA. IZAPIDEAK

Prozesuan dagozkion izapideei jarraitu zaie, ezargarri zaien indarreko xedapenekin bat etorriz; hauexekin, alegia:

- Enerio Aralarreko parke naturalaren barruan kokatzen denez, Aldundiako mendietako zuzendariari, dagokion txostena luzatzea eskatu da.



ABALTZISKETA

- Lursailaren egokitzapenea, 500.000 m³ baino gutxiago izango direnez, 19.000 m³ hain zuzen jarduera sailkatua ez delako eta aurretiazko komunikazioa nahikoa da. Halere, ondorengo dokumentazioa aurkeztu behar da, 1998eko otsailaren 27ko 3/1998 Legeak, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorraren 62.3 artikulua ere arabera xedatutakoarekin bat etorritik:
 - a. Memoria bat, hala jarduera, nola ekintzak, jarduerak ingurumenean, pertsonengan edo ondasunetan duen eragina gutxitzeko ezartzen direnak, deskribatzen dituenak.
 - b. Teknikari eskudunak igorritako ziurtagiria, honakoen gainean: batetik, jarduera eta/edo instalazioak eraikitze-egitasmoari eta aurkeztutako agiri teknikoei doitzen zaizkiela, eta bestetik, ingurumen-betekizun guztiak betetzen dituela, baita, halakorik badago, ingurumen-inpaktuari buruzko adierazpenean jasotakoak ere.
- Indarrean dagoen Plan Orokorren 58 artikulua dioena osotasunean bete beharko da, ondoren esaten den bezala:

58. artikulua. Lursaila, zaborteak eta hondakindegia egokitzea.

Lurzoru ez-urbanizagarrian edonolako lur egokitzapenak egiteko, esate baterako betelanak lurrez edo obrako hondakinez egiteko, edo hondakin inerteak isurtzeko, kasuan kasuko udal baimena ez ezik, indarreko legerian aurreikusitako baimenak ere eskuratu egin beharko dira (Ildo honetan aintzat hartu behar da, besteak beste, hondakinak zaborteak utzita eta betelanak eginda ezabatzeko sistema erregulatzen duen 49/2009 Dekretuak, otsailaren 24koak, ezarritakoa (III. Titulua)). Edonola ere, baimena eman ahal izateko, ingurumenaren ikuspegitik eta natur ingurunearen beraren ikuspegitik begiratuta, jarduera horiek komenigarriak eta egokiak direla justifikatu beharko da alde aurretik. Esku-hartze horiek, betiere, urak jaso eta bideratzeko erabakia, eta proposamenaren ingurumen egokitasuna, arrazoituko dituen proiektu tekniko bat izan beharko dute, aipatutako legerian ezarritako irizpideei jarraituz egina.

Salbuespen gisa, Udalak baimena eman ahal izango du baimendutako obren barruan egindako hondeaketa lanetatik datozen lurak botatzeko, baldin eta lursailen jabeak hori egiteko eskatzen badu, lursail horien nekazaritza eta



ABALTZISKETA

abeltzaintza edo baso erabilpenerako aukerak hobetzeko –betiere sail horiek lurzoru ez-urbanizagarrian badaude, gaian eskumena duen Administrazioak (Foru Aldundia) halakotzat deklaraturako ustiapen bati lotuta–; edo, bestela, jabearen lursailaren sestrak egokitzeko, Plan Orokor honetan, edo plan hau garatzeko sustatutako plangintzan, edo baimendutako beste plan eta proiektu batzuetan egindako aurreikuspenetara. Helburu horri begira, kasuan kasuko proiektu teknikoa egin beharko da, gai honetan indarrean dagoen legerian ezarritako irizpideekin bat, eta

Udalan aurkeztu. Proiektu horretan ziurtatu egin beharko da, besteak beste, egin beharreko betelanak drainatze egokia izango duela, eragina jasan dezaketen elementu naturalak edo eraikiak behar beste babestuko direla, ondorioztatzen diren profilak ingurunean txertatuko direla, eta eragindako lurraren azalera lehengoratuko dela. Azken helburu horretarako, lursail hori urbanizatzekoa ez bada, lur beltzeko geruza bat jarriko da,

behar bezain lodia, eta zuhaitzak zein zuhaixkak eta belar espezieak espezieak landatuko dira, dagokien lurraldearen paisana arloko ezaugarrietara egokituta.

Lurzoru ez-urbanizagarrian egiten diren mota guztietako

hondeaketa lanetan, obren titularrak berezko landaretza berrezarri beharko du, lur beltzeko beharrezko geruza barne, lanen ondorioz hondatuta geratu diren lekuetan.

Artículo 58. Acondicionamientos del terreno, vertederos y escombreras.

Los acondicionamientos de terrenos de todo tipo en suelo no urbanizable, y, entre ellos los rellenos con tierras o escombros, o los vertidos de residuos inertes, deberán ser objeto, además de la correspondiente licencia municipal, de las autorizaciones previstas en la legislación vigente (Se ha de tener en cuenta a ese respecto lo dispuesto en, entre otros, el Decreto 49/2009, de 24 de febrero, por el que se regula la eliminación de residuos mediante depósito en vertedero y la ejecución de los rellenos (Título III)).

En todo caso, su autorización se condiciona a la previa justificación de la conveniencia e idoneidad de esas actuaciones tanto desde perspectivas ambientales como desde las propias

del medio natural. Dichas intervenciones deberán contar en cualquier caso con un proyecto técnico elaborado de conformidad con los criterios establecidos en



ABALTZISKETA

la referida legislación, que, entre otros extremos, justifique la resolución de la recogida y canalización de las aguas y adecuación ambiental de la propuesta.

Excepcionalmente, el Ayuntamiento podrá autorizar el vertido de tierras procedentes de excavaciones realizadas como parte de obras autorizadas cuando el propietario de los terrenos lo solicite bien para mejorar sus posibilidades de utilización agropecuaria o forestal, en el caso de situarse en el suelo no urbanizable y de estar vinculados esos terrenos a una explotación de esa naturaleza reconocida como tal por la Administración competente en la materia (Diputación Foral), bien con el de adecuar las rasantes del terreno de su propiedad a las previsiones de este Plan General, del planeamiento promovido en su desarrollo, o de otros planes y proyectos autorizados.

Con ese fin, mediante la preceptiva elaboración y presentación ante el Ayuntamiento del correspondiente proyecto

técnico redactado de conformidad con los criterios establecidos en la indicada legislación, se deberá asegurar, entre otros extremos, un drenaje adecuado del relleno a realizar, una protección suficiente de los elementos naturales o construidos que pudieran resultar afectados, la integración de los perfiles resultantes

en el entorno, y la recuperación de la superficie del terreno afectado. Con este último fin, en el caso de que el mismo no estuviera destinado a su urbanización, se dispondrá una capa de tierra vegetal de espesor suficiente y se realizará, en su caso, una plantación de árboles y especies arbustivas y herbáceas adecuada a las características paisajísticas del territorio en el que se sitúa.

En las excavaciones de todo tipo que se realicen en el suelo no urbanizable el titular de las obras deberá reponer la vegetación natural, incluyendo la capa de tierra vegetal necesaria en aquellas superficies de terreno en las que, por causa de las obras, la misma hubiese sido destruida.”

Udal-teknikariaren txostenik ez dago.

Gaur egun, Aldundiako Mendietako txostenik ez dago, baina, lan hauek beste lan batetik lotuta daudenez (Amezketako Aralar papelera) lanak burutzen ari dira.

Lan hauen exekuzio materialaren aurrekontua 32.833,81 eurokoa da.



ABALTZISKETA

Egoera honen aurrean, Udalak **ERABAKI DU**:

1. Eskatzaileak luzatu duen eskaera, bere lursailaren egokitzapena egitea, horretarako behar den materiala ekarriaz onartzea, proiektuan esaten den bezala.
2. Indarrean dagoen eraikuntza zergaren arabera, aurrekontuaren %1 udalari ordaintzea, hau da, 328,33€.
3. Eskatzailearen esku geratuko da, ingurunean gerta daitezkeen bestelako baimen eskaeren beharrean erantzutea, hau da, ur agentzia, e.a., horrela beharko balira. Udalak onartutako baimen honek ez ditu baztertzen beste baimenak behar izatea.
4. Eskatzaileari erabakiaren berri ematea.

5- NAÑARRIREN ESLEIPEN PROPOSAMENA ONARTZEA.

Kontratazio mahaiek hartutako erabakiaren berri ematen da, luzatutako akta eskuratuaz.

“Udaletxeko Areto Nagusian, 2017ko maiatzaren 25ean, arratsaldeko 19:00etan, Kontratazio Mahaia eratu da administrazio-kontratu berezia esleitze aldera, hain zuzen ere, Nañarriren berrikuntza eta kudeaketa lanei dagokiena.

Honako kide hauek bildu dira:

Alkatea: Jon Zubizarreta

Udaleko idazkaria: Nekane Lopetegi. Botorik gabe eta fede emateko

Bokalak:

- Adur Gorostidi.
- Aritz Garmendia.
- Kepa Gorostidi.



ABALTZISKETA

Baldintza plegua 2017ko martxoaren 30eko bilkuran onartua izan zen eta zortzi egunez, lizitazioarekin batera jendaurrean egon da, aztertu eta dagokion alegazioak tarteratzeko.

Zortzi eguneko epean alegaziorik tarteratu izan bazen, lizitazioa bertan behera geratuko zen eta, alegaziorik tarteratu ez denez, lizitazioak aurrera jarraitu du.

Baldintza plegua eta lizitazioa jendaurrean jartzea 2017ko apirilaren 27ko Aldizkari Ofizialean argitara eman zen.

Eskaintzak aurkezteko epea, 2017ko maiatzaren 17an amaitzen zen eta jasotako proposamena honakoa izan zen, 2017ko maiatzaren 15ean:

- Alexandra Egunez Zalacain, Ñañarri S.L enpresaren izenean.
- Beste proposamenik ez da aurkeztu.

Alexandra Egunez Zalacain Andreak, baldintza pleguan agertzen diren hiru kartazal aurkeztu ditu eta berauek ireki dira.

A kartazalean, Dokumentazio administratiboa. Eskatzaileak bere Nortasun agiriaren kopia eta idatzi bat agertzen ditu. Idatzi honetan zera esaten du: Ñañarri S.L sozietatea sortzeko lanak bideratzen ari dela. Eta eskritura publikoa berehala sinatuko dutenez, idatzi honi eransteko aurkeztuko duela. Aldi berean, orain arte ikasten jardun duten bi senideen sozietatea osatzen dutela eta gizarte segurantzaren eta Foru ogasunean ez dutela inolako harremanik izan. eta horrela behar izan ez gero, eta esleituak suertatuko balira, Udalarai baimena ematen diotela behar diren egiaztagiriak eskuratzeko. Eta proposamen bat ere aurkeztu du .

B kartazalean, Bideragarritasun plana. Kartazal honetan, bideragarritasun plana burutzen ari dela adierazten du. Bideragarritasun txostena amaitu ostean aurkeztuko duela eta derrigorrez egingo duela, laguntza batzuetara ere aurkeztu beharra duelako, esan du.



ABALTZISKETA

C kartazalean, proposamen ekonomikoa. Baldintza pleguan agertzen den eredia erabiliaz, proposamen ekonomikoa agertzen du. Bertan, B.E.Z.a barne, hileko kanoa 1.452,00 eurotako izango da eta baldintza pleguan jasotako eduki osoarekin adostasuna agertzen du eta beteko duela ere zin egiten du .

Egoera honen aurrean , interesatua bakarra ageri dela ikusi da, eta hainbat dokumentu aurkeztea falta bada ere, nagusiena aurkeztu duela kontsideratu daiteke: baldintza plegua osotasunean onartzea eta eskaintza ekonomikoa egitea.

Horregatik, mahaikideek, proposatzen dute:

1. Esleipena Alexandra Egunez Zalacain andreari egitea, sortze bidean dagoen Ñañarri S.L. ren ordezkari gisa.
2. Falta den dokumentazioa osatzeko hamar egunetako epea ematea. Eta hamar egun pasa ostean dokumentazioa aurkeztu ezean, erabakia baliorik gabe uztea. Eta hamar egunetako epean dokumentazioa osoa aurkezten bada erabaki berrik hartu beharrik ez izatea.
3. Osoko Bilkurari erabakiaren berri ematea.

Mahaiburuak egintza bukatutzat jo du, eta horren guztiaren gainean, nik, Idazkariak, akta egiten dut. Fede ematen dut.

Abaltzisketan, 2017eko maiatzaren 25ean.

Alkateak

Idazkariak “

Kontutan hartuaz, administrazio-espeditentea bideratu da Ñañarri udal eraikinean zenbait berrikuntza eta hornikuntza lanak egin ostean, kudeaketa ustiatzeko administrazio-kontratu berezia esleitze aldera.

Kontutan hartuaz, Kontratazio Mahaiak esleipen-proposamena egin du, proposamen bakarra aurkeztu da eskaintzaren alde, erabaki proposamena luzatu du zuzentzen duen administrazio-klausulen agirian ezarritako baremoarekin bat etorritz.



ABALTZISKETA

Udalak bere aldetik ere, Ñañarriren egoerari irtenbidea eman nahiean, interesa du, proposamen honekin aurrera jarraitzea. Horregatik,

ERABAKI DU:

LEHENENGOA. Lizitazioa baliozkotzat jotzea eta ÑAÑARRI SL ri esleitzea, hileroko 1.452,00 B.E.Z.a barne euroko kanonarekin, Ñañarri ustiatzeko administrazio-kontratu berezia.

BIGARRENA. Kontratua sinatu aurretik honako dokumentazioa eskatzea:

- Bideragarritasun plana eta bertan lan metodologi eta proposamena ere jasotzen duen txosten zehatza aurkeztea .
- Foru Ogasuna, Gizarte segurantza eta Abaltzisketako Udalean zorrik ez izatearen egiaztagiria.

HIRUGARRENA. Alkate Jaunari ahalmena ematea kontratua gauzatzeko dagokion administrazio-agiria egiletsi dezan, aurreko atalean adierazitako dokumentu guztiak aurkeztu eta gainbegiratu ostean.

LAUGARRENA. Erabaki hau esleipendunari eta lizitatzaillei jakinaraztea eta, aldi berean, kontratatzailearen profilean argitaratzea. Esleipendunari, orobat, errekerimendua egingo zaio, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak –Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onetsi duenak, SPKLTB– 151.4. artikuluan agintzen duenarekin bat etorriz, lizitatzaillei eta hautagaiei egin zaien esleipen-jakinarazpena jaso eta errekeritu diren dokumnetu guztiak ekarri ostean bost egun baliodunetan kontratua gauzatu dezan.

6- ÑAÑARRIREN EXEKUZIO PROIEKTUA GAUZATZEKO AKORDIOA ONARTU ETA BERAU FINANTZIATZEKO AURREKONTUARI DAGOKION KREDITUA ONARTZEA.

Jaurlaritzako Erein egitasmoaren diru laguntzak eskatu ahal izateko, Ñañarri proiektuaren barruan, oinarrizko proiektua erredaktatua dagoela, baina, exekuzio proiektua egina izateak laguntzetan berme gehiago ematen duela jakitera eman ziotela alkateari mahairatu du.



ABALTZISKETA

Eta honen ondorioz proposatzen du, exekuzio proiektuaren erredakzio lanei ekiteko gaia tratatu eta dagokiona erabakitzea.

Mahaikideek, gaia aztertu eta erabakitzeko, erredakzio proiektuaren kostua eta Jaurlaritzako laguntzaren eskaerarako ezinbestekoa den jakitea komeni dela esan dute.

Horregatik, gaia dagoen bezala utzi da, aurrerago erabakitzeko.

7- TOLOSALDEKO ATARAIAREN HITZARMENA ONARTZEA.

Alkateak jakinarazten du, gai honen inguruan zenbait bilera informatiboan hitz egin duela eta eskualdeko beste udalerrri guztiek Atariarekin hitzarmenak sinatzeko onarpena emana dutela eta Abaltzisketa geratzen dela.

Hitzarmenaren edukia ikusi duela eta bere aldetik, bilera informatiboetan esan bezala, 2017 urterako eragina duela, onarpena ematea proposatzen du.

Hitzarmenak honela dio:

ABALTZISKETAKO UDALA ETA TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA s.m. 2017 URTE ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Abaltzisketan, bi mila eta hamazazpiko ekainaren 8an

BILDURIK

Batetik, JON ZUBIZARRETA ALDAIA, NAN: 44.163.244-R, Abaltzisketako Udaleko (aurrerantzean Udala) alkatea, haren izenean eta ordez diharduena, eta horretarako behar bezala ahalmenduta dagoena.

Eta bestetik, Xabier Saizar Ingidua, NAN: 15997042J, Tolosaldeko Komunikazio Taldea, S.M.ko (aurrerantzean TKT) lehendakaria, haren izenean eta ordez diharduena.

Bi alderdiok lankidetzaren hitzarmen hau egiteko eskuduntza eta gaitasuna aitortzen diote elkarri eta

AITORTZEN DUTE:



ABALTZISKETA

I.- Abaltzisketako Udala eta TKT-k bat egiten dutela euskararen biziberritze eta berreskuratzeko premi eta helburuekin, eta herritarren euskarazko informazio bideak eraiki eta indartzearekin batera, horiek direla hitzarmen honen xede eta funtsa.

II.- TKT dela Tolosaldeko Ataria egunkari eta astekaria, Ataria Irratia eta www.ataria.eus gunearen jabe eta ekoizpen arduraduna.

III.- TKT-k eraturako euskarazko komunikabide sare honen helburu nagusia, euskalgintzan diharduten beste eragile askorena bezala, euskararen normalizazio bidean ekarpen esanguratsua egitea dela, eskualdean sortzen den informazioa kudeatu eta komunikatuz euskaratik eta euskaraz.

IV.- TKT-k kudeatzen duen komunikabide sarearen eremua Tolosaldeko eskualdea osatzen duten herrietara hedatzen dela, bere onuradun direlarik bertako herri eta herritar guztiak, tartean, Abaltzisketa.

V.- Beharrezkoa dela TKT-k aipatu eskualdean egiten duen lanari behar bezalako aitortza egitea ez ezik, bere jardunaren kalitatea ziurtatu eta sendotzeko Udala eta TKT-ren arteko lankidetzak jardunean sakontzea, aintzat harturik 2013an Udalarik aurkeztutako proiektu komunikatibo bateratua (Galtzaundi hamabostekaria, Txolarre Irratia eta Tolosaldeko Hitza egunkaria bateratuz sortua) eta bideragarritasun plangintza.

Hau guztia honela izanik, LANKIDETZA HITZARMEN hau sinatu dugu, ondorengo klausulen arabera.

KLAUSULAK

LEHENA.- LANKIDETZA HITZARMEN honen helburua da TKT-k eta Udalak, elkarlanean, hedabideen alorrean euskararen erabileraren normalizazio-lanak bideratzea.

BIGARRENA. LANKIDETZA HITZARMEN honetan, TKT-k jarraian aipatzen diren ekoizpen ildoak garatu eta hobetzen ahalegintzeko konpromisoa hartzen du:

- a) Tolosaldeko Ataria, prentsa: argitaratuko dira zortzi orriko egunkaria astearte, asteazken eta ostegunean, eta astekaria ostiraletan, abuztuan izan ezik.
- b) Ataria Irratia 24 ordutan: gutxienez 4 orduko programazio propioa emitituko da astelehenetik ostiralera, abuztuan izan ezik; arratsaldean tartean utziko dira eskualdeko Gizarte Eragileen ekarpenez betetzeko.
- c) Internet: ataria.eus web gunea eguneratu eta elikatzea urte osoan, etenik gabe.

HIRUGARRENA. TKT-k, bigarren artikuluan aipatutako ildoak bideratzeko, herritarrei eskaintzen zaien zerbitzua ere baden heinean, konpromiso hauek hartzen ditu:



ABALTZISKETA

- a) Herritarren intereseko produktuak (edukiak, formatua, maiztasuna...) lantzeko ahalegina egingo da. Hedabideen bilakaera azkarra kontuan, gertatzen diren aurrerabideak etengabe aztertu dira beharrezkoak izan daitezkeen hobekuntzak egiten saiatzeko.
- a) Herri guztietan dugun banaketa sistema hobetzeko neurri bideragarriak hartuko dira.
- b) Ataria marka gizarteratu eta harpide sarea zabaltzeko ahalegin etengabea egingo da.

LAUGARRENA.- LANKIDETZA HITZARMEN honen bidez, Udalak, proiektua indartu eta bere bideragarritasuna bermatzeko, ekimen lerro hauek garatuko ditu:

- a) Diru ekarpen zuzena. Egonkortasun ekonomikoa bermatzeko: Udalak 1.635,00€ (errolda eguneratuaren arabera, biztanleko 5 €) emango dizkio 2017 urtean.(327 biztanlex5,00€).
- b) Publizitatea. Erreferentzialtasuna irabazteko, publizitatea egitea behartuak dauden iragarki ofizialak eta eskelak Tolosaldeko Atarian jartzeko konpromisoa hartzen du Udalak tarifatik %50eko deskontuarekin. Gainerako publizitatea, urteko fakturazioaren arabera negoziatuko dute bi aldeek; hala balitz, urtean-urtean adostutako plangintza komertzialean islatuko litzateke.
- c) Beste euskarriak. Ohiko ekoizpenetik at, Udalaren eta TKT-ren artean osatuko den lan-taldeak adostutako proiektua sustatzeko diru ekarpen bereziak egin ahal izango ditu Udalak.
- d) Sozializazio eta banaketa. Herritarren eta bertako indar eragileen borondatea eta lankidetzaren erakartzeko Udal zerbitzuen kooperazioa izango du TKT-k.
- e) Informazioaren kudeaketa: Udalak berak edo herrian sortzen den informazio jariora sistematikoki trukatzeko neurriak hartuko dituzte Udalak eta TKT-k.

BOSGARRENA.- Udalaren eta TKT-ren ordezkari osatutako lan-taldeak urtero bilera egingo du. Batetik, hitzartutakoaren jarraipena egiteko, hau da, orain artean gertatu den moduan, hitzartutakoa objetibotasun, pluraltasun eta egokitasunez betetzen ari den aztertzeke. Eta, bestetik, dokumentu honetako hirugarren artikuluan hartutako konpromisoen betetze maila aztertzeke.

SEIGARRENA.- Aipatutako diru ekarpen zuzena (4.a. puntua) honela egingo da: hitzarmenean adostutako diru-ekarpen osoa dagokion urteko egitasmoa eta aurrekontua aurkeztu eta hilabeteko epean jasoko du TKT-k. Urte amaieran, jardunaren oroitidatzia eta Udalaren diru-ekarpen osoa zuzentzeko fakturak edota beraien fotokopia konpultsatuak eta



ABALTZISKETA

zerga zein gizarte segurantzako betebeharrak egunean izatearen ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

Edozein modutan ere, Udalaren diru-ekarpena jaso ahal izateko, aurreko ekitaldiko harremana eguneratua egon beharko du.

Eta horrela jasota uzteko eta adostasuna agertzeko, hitzarmen honen hiru ale sinatu dituzte bildutakoek, hasieran aipatutako toki eta egunean.

Abaltzisketako Udaleko alkatea
Jon Zubizarreta Aldaia

Tolosaldeko Komunikazio Taldea
Xabier Saizar Ingidua

Udal idazkaria

Mahaikideek ERABAKI DUTE:

1. 2017 urterako Abaltzisketako Udalak Tolosaldeko Atariarekin hitzarmena sinatzea.
2. Hitzarmenean adierazten den dirulaguntza, 2017ko aurrekontuaren gain ordaintzea 422.334.00.01 partidatik, horretarako falta diren 1.135,00 euro kreditua gehikuntza eginaz.
3. Hitzarmenaren sinadurarako Alkatea baimentzea.

8- ARALAR BIZIRIK IZENEAN AURKEZTUTAKO MOZIOA AZTERTU ETA DAGOKIONA ERABAKI.

Abaltzisketako Udaleko sarrera erregistroan, 2017ko martxoaren 23an Jose Luis Zubeldia Gorostidik ondorengo eskutitatzari sarrera eman zion, Osoko Bilkurara zuzentzeko eskatuaz.

**.....KO UDALAK ARALARKO GATAZKA
KONPONTZERA BIDEAN HARTZEN DUEN ERABAKIA**



ABALTZISKETA

SARRERA

Orain 14 bat urte aztoratu gintuen eztabaida kalean jarri digute berriro. Enirio-Aralarko Mankomunitateak, Foru Aldundiak 2015-2019 aldirako egindako kudeaketa plana onartu baitu, besteak beste, Goroskintxu-Saltarri, Enirio-Doniturrieta, Ariñate-Igaratzara pistak egiteko eta Latosa, Pagabe, Pardeluts eta Zotaletara besoak ateratzeko. 2016an Intzesao-Goroskintxu pista egin du dagoeneko Mankomunitateak, inpaktu larriak eta konponezinak sortuz. 2003an berriz, bai Enirio-Aralarko mankomunitateak zein Foru Aldundiak atzera bota zuten pista proiektua, Aralar Natur Parkea babestearen alde.

Gipuzkoako Foru Aldundia da Aralar Natur Parkearen arduradun nagusia, eta bultzatzen dituen pista guzti hauek Aralar Natur Parkea eta Babes Bereziko Eremua babesten duten legediaren aurka doaz.

Aranzadi Zientzia Elkarteak, Aralarri buruz ezagutza zientifiko gehien duen prestigiodun taldeak, natur parkean egitera doazen pista proiektuak sortuko dituen inpaktuak larriak eta atzeraezinak izango direla adierazi du Batzar Nagusietan. Irizpide horiek ez ditu aintzat hartu nahi Aldundiak, orain 14 urte pista proiektua atzera botaz hartu zituen bezala. Orduan, Legebiltzar osoak onartu zuen pista berriak eraikitzekeo plana guztiz desegokia zela Natur Parkearen helburuak betetzeko. **Aranzadik, pista proiektua aurrera eramanez gero, abeltzaintzaren etorkizuna ez lukeela bermatuko eta Aralar Natur Parkean ondorio konponezinak sortuko lituzkeela adierazi zuen.**

Hortaz, auzi honetan batzuen interesak bakarrik hartu dira kontuan, parkearen izaera arriskuan jarriz eta epe luzera, artzaintza eta abeltzaintzarena ere bai, lurzoruaren higadura areagotuz. Ezin dira ezkutatu pisten eraikuntzak inguru naturalean eragiten dituen kalte eta inpaktuak. Batez ere Aralar bezalako mendietan, natura eta paisaia balio apartak izatearekin batera, oso hauskorrak gertatzen baitira, honelako obrek larriki kaltetzen dituztelarik.

Horrez gain, auzi honek Aralarko herrietan tentsio jasanezina sortu du eta hori desagerrarazteko eta bizikidetzaren berreskuratzekeo, ezinbestekoa da lehendabizi **pista proiektua geldiaraztea**, ondoren **gaur egungo egoera osotasunean**



ABALTZISKETA

hartuta aztertzea, datuak publiko egitea eta teknikarien laguntzaz eta sektore ezberdinen artean (artzain, mendizale, naturazale, ekologista, ornitologo,...) Aralarko Natur Parkearen kudeaketa plana berrikustea, beti ere, parkearen arauak onartuz eta legeak betez.

Egoera honen aurrean, Aralar Bizirik Plataformak, Udaleko Osoko Bilkuran honako hau onartzea proposatzen du:

MOZIOA:

Aralarko pisten inguruko gatazka konponbideak

1. Saltarrikoa, zein beste pista proiektu guztiak gelditzea.
2. Enirio-Aralarko Mankomunitateak 2003an onartu zuen Ekintzen Egitamua berrikusi dezala, eman daitezken erabilerak naturaren babesaren menpean jarriz eta, onartzeko prozesuan, herritarren parte-hartzea eta eztabaidari bide emanaz.
3. Enirio-Aralar mendi publikoa izanik, Mankomunitatea erakunde gardena eta irekia izatea, informazioa zabalduz eta Enirio-Aralarren zainketan herritarrak parte hartzeko bideak ipiniz.
4. Herri bakoitzak Mankomunitatean duen ordezkariak, Aralarren inguruko gai garrantzitsuetan gutxienez, Udal horietako plenoan eztabaidaturiko eta bozkaturiko erabakia eramango du Mankomunitateko batzarretara.

..... Udalaren erabaki hauek Enirio-Aralarko Mankomunitateari lehenbailehen jakinarazi eta erabaki honekin bat egiteko eskatzea, horretarako behar diren neurriak hartuz.

Foru Aldundiko Ingurumen eta Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendariei akordio hauen berri ematea eta aintzat hartzeko eskatzea.

ARALAR BIZIRIK PLATAFORMA

2017korena



ABALTZISKETA

Abaltzisketako Alkateak, mozioa jaso eta berak hartu eta proposamen bezala gai zerrendan sartu zuen mahairatzeko, nahiz eta jaso den mozioaren edukiarekin ados ez egon.

Eta aurkeztutako mozioaren aurka bere kontramozioa aurkeztu du.

Horretarako gaia eztabaidatu eta tratatzeko adostasunik badagoen galdetzen da Tokiko Administrazioiko Organizazio eta funtzionamendu erregelamenduaren 97 artikulua jarraituaz.

Mahaikideek, gaia aztertu eta eztabaidatzeko ados agertu dira.

Eta bi mozioek irakurri dira.

KONTRAMOZIOA:

SARRERA:

Duela 14-15 urte, Enirio-Aralar Mankomunitateko abeltzainak gaur egungo eskakizun berdinak egiten zituzten. EKOS Estudios Ambientalesek bide sare baten proiektua egin zuen, Aldundiak ala aginduta.

Mankomunitatea eta Parkeko Zuzendaritzaren arteko eztabaiden erdian, Aranzadiri txosten bat eskatzea adostu zuten (2001-01-31). Aranzadiren txostena, bide hoi guztiz aurkakoa izan zen (2001-04-09). Ordizian, Legorretan eta Amezketa bilera informatiboak antolatu ziren autetsientzat. Zaldibian mahainguru bat ere bai.

2001-10-10-ko datarekin, IKT aukeratzen da Egitamu Plan berria egiteko.

2002-12-18-ko datarekin eta 7 herriren bozkekin bakarrik (Ordizia, Beasain, Amezketa, Baliarrain, Ataun, Lazkao eta Itsasondo) behin behineko onarpena ematen zaio Dokumentuari.



ABALTZISKETA

2003-ko Maiatzean, artzaiek protesta egiten dute Larraitzen, “*bideak noizko?*” lemapean. Aste bete beranduago, idatziz erantzuten die Mankomunitateak. Argudio nagusia mendia beraiena bakarrik ez dela erabiliaz.

Artzaiek eta EHNE-k ez dute harremanik Mankomunitatea eta Parkeko Zuzendaritzarekin. Haustura guztizkoa da.

Legealdi honetan, 2016-ko Urtarrilaren 2-an, mendira bisita bat egiten da Mankomunitateko batzarkideak eta Aldundiko Zuzendariak bertan direlarik. Hausnarketa bat egiten da, egungo egoerari buruz eta “*gutxieneko azpiegiturei*” lehenasuna ematea erabakitzen da denen adostasunarekin, beti ere abeltzainen beharrei erantzuteko. Telefonoaren estaldura, interneta eta txaboletara bideak izan ziren aipatu ziren gutxieneko azpiegitura hoiek.

2016-ko Urtarrilaren 30-ean, abeltzainekin egindako Batzarrean, besteak beste guzti horren berri ematen da eta proiektu nagusi bezela Goroskintxuko bidea aipatzen da.

2016-ko Abenduan Mankomunitateak, Aldundiak aurkeztutako 2015-2019 Legealdiko Plana onartzen du, abeltzainen ordezkariak Lan Taldean proposatutako beharretan oinarrituta. Plan hau 10 udalerririk onartua izan da, sektore osoaren babesa du, Batzar Nagusietan gehiengo zabal batek babestua izan da eta Aralar Parke Naturaleko Patronatuan ere gehiengo zabal batez onartua izan da.

Guzti honengatik: nik Jon Zubizarreta Aldaia, Abaltzisketako alkateak hurrengo puntuak onartzea proposatzen dut:

- Abaltzisketako baserritar guztiei aitortza bat egitea, gizaldietan herri lur eta mendietan egin duten lanarengatik, hori izan delako herriaren jarduera nagusia, horrek eman digulako nortasuna eta herri izaera. Era berean errekonozimendua Enirio-Aralar Mankomunitateko lurretan abeltzainek egiten duten onurari, baita Gipuzkoa eta Euskal Herriko artzantza, abeltzantza eta lehenengo sektoreko jarduera guztiei ere.



ABALTZISKETA

- Enirio-Aralarren meatzeen eta basogintza bezelako jardueren ondotik, abeltzantza jarduera honek gauzatu duela gaur egun dugun paisaia hau. Paisaiarekin batera gure ama hizkuntza, kultura eta elikagaien sorleku eta babesleku izan dela.
- Abeltzantza jarduera honen ondorioz, Habitat nagusi bat sortu dela, MENDIKO LARREAK, babestu eta ahal bada hobetu beharrekoa, Europak horrela esaten duelako.
- Habitat nagusi hori babesteko eta ahal bada hobetzeko, derrigorrezkoa dugula abeltzantza jarduera bat eta bide horretan beste arlo guztietan bezalaxe lan eta bizi baldintzak hobetu behar direla.
- Aurrera begira, gure aurrekoek utzi diguten ondarea, ondorengoei ahalik eta baldintza onenetan uzte asmoz, belaunaldi aldaketa gauzatzen joan dadin, Mankomunitateak onartu duen Inbertsio Beharren Plana babestea.

Azkenik bozketa egin da, eta honako erabakia hartu da:

- Alkatearen kontramozioak aldeko boto guztiak jaso ditu, eta Aralar bizirik sinatutako mozioak ez du botorik jaso.

9- 2017 URTERAKO MALLOKO LARREEN PREZIOAK ERABAKI

2017 urterako malloko larrearen denboraldia hasi dela eta beraun tasa zenbatekoa izan behar duen erabakitzeke dagoela ikusten da.

Alkateak adierazten du, malloko larren kasuan, Gipuzkoan dauden beste larre publikoek baino behi eta behorren larrea garestiena dela. Eta ardientzako eta ahuntzentzako parean geratzen dela. Adibidez, Enirio Aralarren buruko 11,00€, Zaldibin eta Idiazabalen dohan.

Horregatik proposatzen du:

- Ardi eta ahuntzen larrean KPIearen arabera prezioa igotzea.



ABALTZISKETA

- Eta behi eta behorren kasuan, lehengo prezio berdina mantentzea edo jaistea ere pentsatu daitekeela. Halere, oraingoz lehengoa mantentzea proposatzen du.

Larre onak direla esan da, ganaduzaleek ere lan asko egiten dutela mendian ere esan da.

Mahaikideek, 2017 urterako malloko prezioak onartzea erabaki dute:

	<u>2016ko prezioa</u>	<u>Igoera</u>	<u>2017ko prezioa</u>
Behiak	41,29	%0	41,29
Behorrak	30,26	%0	30,26
Ardiak	1,65	%1,9	1,68
Mandoak	27,25	%0	27,25

10- FORU ALDUNDIKO ORDEZKARIEN ERROLDAKO DATUAK JASOTZEKO D-7 ERANSKINA ONARTZEA.

Ordezkaritza Legalaren erregistroa Gipuzkoan Aldundiak duenez, erregistro hau erabiltzeko, kontsultatzeko, Udaleko eginkizunetarako erabiltzeko aukera eskaintzen da, horretarako bi alderdiek hitzarmen bat sinatu behar dutelarik.

Hitzarmenaren edukia, ondorengoa da:

D-7 ERANSKINA.- Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan jasotako datuen kontsulta.

ANEXO D-7. Consulta de los datos obrantes en el censo de representación legal de la Diputación Foral de Gipuzkoa



ABALTZISKETA

1. Deskripzioa. Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan jasotako datuen kontsulta.

2.- Informazio lagapenaren helburua. Ordezkaritza egiaztatzea hirugarren pertsonen izenean egiten diren jarduketan.

3.- Arau oinarria. Bai administrazio prozedurari buruzko araudiak bai araudi tributarioak ordezkartzaren egiaztapena eskatzen dute hirugarren pertsonen izenean jarduteko.

4.- Datuen titularren baimena. Ez da beharrezkoa. Izan ere, eranskin honetan arautzen den informazioaren lagapenerako, interesdunaren baimena ez da bete beharreko eskakizuna lagapena aurreikusita baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 6. artikuluan.

5.- Eman beharreko informazioaren edukia.

Udal hartzaileak kontsultatu ahaliko du Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan jasotako datuak.

6.- Informazio lagapenerako prozedura.

Informazio lagapena bi alderditik egingo da:

- a) Atzipena udalaren zerbitzu telematikoen ataritik: Legezko ordezkartzaren bat duen pertsonak ordezkatzaren duen pertsonaren izenean baliabide elektronikoen bitartez jardutea nahi izango balu, udal aplikazioak ordezkartzaren baliozkotu du ordezkarien erroldan dagokion kontsulta eginez.
- b) Udal langileen atzipena: Udal hartzaileak izendatutako langileek legezko ordezkarien erroldan atzitu ahaliko dute, oinarritzeko kontsulta profilekin, zerbitzari seguru batean horretarako berariaz prestatutako zerbitzua erabilita. Sistemak baimendutako erabiltzaileen autentifikazioa

1. Descripción. Consulta de los datos obrantes en el censo de representación legal de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

2.- Finalidad del suministro. Acreditación de la representación en actuaciones realizadas en nombre de terceras personas.

3.-Justificación normativa. Tanto la normativa del procedimiento administrativo como la normativa tributaria exigen la acreditación de la representación para actuar en nombre de terceras personas.

4.- Consentimiento de la persona titular de los datos. No es necesario. El suministro de información que se recoge en el presente anexo no requiere el consentimiento de la persona interesada por estar prevista en el artículo 6 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

5.- Contenido de la información a suministrar.

El ayuntamiento cesionario podrá consultar los datos obrantes en el censo de representación legal de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

6.- Procedimiento para el suministro.

El suministro de la información se realiza desde una doble vertiente:

- a) Acceso del portal de servicios telemáticos del ayuntamiento: Cuando la persona que ostente una representación legal quiera actuar en nombre de su representada por medios electrónicos, la aplicación municipal validará la representación mediante la oportuna consulta al censo de representación.
- b) Acceso del personal del ayuntamiento: El personal designado por el ayuntamiento cesionario podrá acceder al censo de representación legal con el perfil de consulta básica utilizando el servicio habilitado a tal efecto en un servidor seguro. El sistema exigirá la autenticación



ABALTZISKETA

eskatuko du betiere, eta komunikazio segurua eta j datuen osotasuna eta konfidentzialtasuna bermatuko ditu.

Horrek guztiak ez du eragotziko beste bideren bat ezartzeko aukera, kasu jakin batean eraginkorrago eta komenigarriago dela irizita, betiere hein berean segurua bada, eta horretarako eskuragarri eta baliagarria bada.

7.- Lagapenaren aldizkakotasuna eta eragiten dien pertsonen kopurua.

Kontsulten aldizkakotasuna iraunkorra eta etengabea izango da, udal hartzailearen beharren arabera.

Ezin da eragingo duen pertsonen kopurua zehaztu, kontsulten zenbatekoa baliabide elektronikoen erabiltzaileen eta horiek legezko ordezkariak erregistratuta duten ala ez menpe baitago.

8.- Emandako datuak hirugarren bati lagatzeko aurreikuspena.

Ez

9.- Erabiltzaileen kudeaketaz eta emandako informazioaren segurtasunaz eta kontrolaz arduratuko den organoa.

Nekane Lopetegi Etxeberria, N.A.N. zenbakia 15.969.743-S, Abaltzisketako Udaleko Idazkari-Kontuhartzailea, udala@abaltzisketa.eus e-posta duena.

Erabiltzaileei alta ematea, sarbideak baimentzea eta sarbide horiek etengabe eguneratu eta egokitzea, udal hartzailearen organo arduradunak (edo bestela, IZFEK) egingo duen zeregina izango da, Ogasun eta Finantza Departamentuak gainbegiratzeko duen aukera baztertu gabe.

Nolanahi ere, sarrera kudeaketaren arduradunak erabiltzaileei pertsonalki informatuko die informazioa atzitzearen ondorioz berari dagozkion betebeharrak eta erantzukizunaren inguruan.

Udal hartzaileak erantzungo du bere erabiltzaileek legezko erroldaren datuei ematen dieten erabileragatik, eta, zehazki,

de los/as usuarios/as autorizados/as y garantizará una comunicación segura y la integridad y confidencialidad de los datos.

Todo ello, sin perjuicio de que pueda establecerse cualquier otro medio que se entienda igualmente seguro y que, estando disponible y habilitado a estos efectos, resulte más eficaz y conveniente en cada momento.

7.- Periodicidad del suministro y número de personas afectadas.

La periodicidad de las consultas será permanente y continuada en función de las necesidades del ayuntamiento cesionario.

No es posible establecer el número de personas afectadas ya que el número de consultas depende de la utilización de medios electrónicos y de si los y las usuarias tienen o no registrada una representación legal

8.- Previsión de ulteriores cesiones de los datos suministrados.

No.

9.- Órgano responsable de la gestión de usuarios/as y de la seguridad y del control de la información cedida.

Nekane Lopetegi Etxeberria, DNI 15.966.590-J, Secretaria-Interventora del Ayuntamiento de Abaltzisketa, E-mail: udala@abaltzisketa.eus.

El órgano responsable del ayuntamiento cesionario (o IZFE, en su defecto) asumirá directamente, respecto de sus usuarios, el alta, la autorización de accesos y su permanente actualización y adecuación, con independencia de la supervisión que pueda efectuarse por el Departamento de Hacienda y Finanzas.

En todo caso, los usuarios serán informados personalmente por parte del responsable de la gestión de accesos sobre las obligaciones y responsabilidades que le incumben como consecuencia del acceso a la información.

El ayuntamiento cesionario será responsable respecto de la utilización que sus usuarios realicen de los datos del censo de



ABALTZISKETA

haiek eskuratzen dituzten datuen
proporzionaltasun, egokitasun eta
bidezotasunagatik.

10.- Solaskideak.

Zuzenbideko gaietarako: Zerbitzu Teknikoa, tlf. 902 100 040 / [Nekane Lopetegi Etxeberria](#), N.A.N. zenbakia 15.969.743-S, Abaltzisketako Udaleko Idazkari-Kontuhartzailea, udala@abaltzisketa.eus e-posta duena. eta 943652900 telefonoa duena.

Informatika gaietarako: IZFE, SA [Nekane Lopetegi Etxeberria](#), N.A.N. zenbakia 15.969.743-S, Abaltzisketako Udaleko Idazkari-Kontuhartzailea, udala@abaltzisketa.eus e-posta duena. eta 943652900 telefonoa duena.

Beste gai material batzuetarako (lagapenaren ohiko kudeaketa...): Zerbitzu Teknikoa, tlf. 902 100 040 / [Nekane Lopetegi Etxeberria](#), N.A.N. zenbakia 15.969.743-S, Abaltzisketako Udaleko Idazkari-Kontuhartzailea, udala@abaltzisketa.eus e-posta duena. eta 943652900 telefonoa duena.

Bi aldeek beren gain hartzen dute eranskin honetan adierazitako datuak eguneratuak izateko ardura

11.- Bestelako eginkizunak.

Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Gipuzkoako lurralde historikoko udalek informazioa elkarri lagatzeko lankidetz hitzarmenaren hamahirugarren klausulan jasotzen den informazioa sistema tradizionalen bidez bidaltzeko ez eskatzeko eta herritarrari ekarpen indibidualik egiteko ez eskatzeko konpromisoaz gain, udal hartzaileak konpromiso hauek ere hartzen du:

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Departamentuari jakinaraziko dio informazio lagapenean gerta daiteken gorabeherak, teknikoak nahiz juridikoak.
- Erroldan inskribatu gabeko legezko ordezkarietzi buruzko informazioa atzitu balu, horren berri emango dio Ogasun eta

representación legal, en especial, de la proporcionalidad, adecuación y pertinencia de los datos a los que accedan.

10.- Interlocutores/as.

Para cuestiones jurídicas: Servicios Técnicos, tlf. 902 100 040 / [Nekane Lopetegi Etxeberria](#), DNI 15.966.590-J, Secretaria-Interventora del Ayuntamiento de Abaltzisketa, E-mail: udala@abaltzisketa.eus. y teléfono 943652900.

Para cuestiones informáticas: IZFE, SA / [Nekane Lopetegi Etxeberria](#), DNI 15.966.590-J, Secretaria-Interventora del Ayuntamiento de Abaltzisketa, E-mail: udala@abaltzisketa.eus. y teléfono 943652900.

Para otras cuestiones materiales (gestión ordinaria del suministro...): Servicios Técnicos, tlf. 902 100 040 / [Nekane Lopetegi Etxeberria](#), DNI 15.966.590-J, Secretaria-Interventora del Ayuntamiento de Abaltzisketa, E-mail: udala@abaltzisketa.eus. y teléfono 943652900.

Ambas partes se comprometen a mantener actualizados los datos contenidos en el presente anexo.

11.- Otros compromisos.

Además del compromiso de no exigir la remisión de la información por sistemas tradicionales ni su aportación individual al ciudadano recogido en la cláusula decimotercera del convenio de colaboración en materia de cesión recíproca de información entre el Departamento de Hacienda y Finanzas y los ayuntamientos del territorio histórico de Gipuzkoa, el ayuntamiento cesionario se compromete a:

- Comunicar al Departamento de Hacienda y Finanzas de cuantas incidencias, técnicas o jurídicas, se produzcan en el suministro de información.
- Si tuviera acceso a información relativa a representaciones legales no inscritas en el censo, dará traslado de dicha información al



ABALTZISKETA

Finantza Departamentuari, badagokio,
ofiziozko inskripzioa egin ahal izateko.

Departamento de Hacienda y Fianzas para su
posible inscripción de oficio.

Mahaikideek ERABAKI DUTE:

1. Ordezkaritza Legalaren Erregistroa erabiltzeko arautzen den hitzarmenari onarpena ematea.
2. Hitzarmena sinatzeko Alkatea baimentzea.

11- 2017KO 1. SEILABETEKO ZABOR ERROLDARI ONARPENA EMATEA.

2017ko 1. seilabeteko zabor bilketa erroldari onarpena emateko proposamena mahairatzen da, ondoren, tasak kobratu ahal izateko.

Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araugintza Erregelamenduaren 41.18 artikulua betetzearren, 2016-01 zabor bilketa errolda onartu ondoren, errolda hori jendearen agerian jarri behar da uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Udal Ogasunen Arautzaileak, 14. artikuluko 1. zenbakian agindutakoa betez. Halaber borondatez ordaintzeko epearen eta eraren berri ematen da, apirilaren 9ko 27/1991 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Herrialde Historikoko Zerga bilketa Erregelamendua onartzekoak, 78. artikulua eskatu bezala.

Jendaurreko epea, hilabetekoa izango da, dagokionak erreklamazioak aurkezteko. Epea iragan eta alegaziorik ezean, dagoen bezala onartutzat emango da, erabaki berririk hartu beharrik gabe.

Ordaintzeko epea, borondatezkoa, 2017ko uztailaren 3tik abuztuaren 31 arte.

Aipatutako epean zorrak ordaintzen ez badira, prozedura exekutibotik eskatuko dira eta horiei premiamenduzko errenergia, berandutza interesak, eta sor daitezkeen kostuak gehituko zaizkie.

Mahaikideek ERABAKI DUTE:



ABALTZISKETA

2017-01 zabor bilketa erroldari onarpena ematea.

12- ALKATEAK ONARTUTAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA:

Alkateak, ondorengo ebazpenak emn dituela jakitera eman da:

2017-12: MARTXOKO FAKTURA.

Ebazpen honetako fakturen zenbatekoa 10.035,81 € dira.

2017-13: PLUSVALÍA.

Indarrean dagoen legediaren babesean luzautako zergaren likidazioa .

2017-14: 2018 URTERAKO JAI EGUNA.

2018 urterako jai eguna izendatzea

2017-15: APIRILEKO FAKTURA.

Ebazpen honetako fakturen zenbatekoa 18.059,48 € dira.

2017-16: IBILGAILU HOBARIA.

Balio historikoa duelako hobaria onartzea, ibilgailuen zergan.

2017-17: TTAN TTAKUN AISIALDIA.

Akanpada egiteko baimena onartzea.

2017-18: ARNASTU EUSKARA DIRULAGUNTZA.

Dirulaguntza onartzea, 150,00 euro hain zuzen ere.

13- HERRIKO JAIETARAKO PROIEKTOREA ETA PANTALLA ALOKATZEA ONARTZEA.

2017 urtean , San Juan bezperan dantzatzen den soka dantza berreskuratu zela 30 urte direla eta ekitaldi berezia antolatu nahi dela aditzera eman du Alkateak.



ABALTZISKETA

Jai batzordeak, ekitaldi honen barruan, argazki, bideo emanaldi eta dantza saio berezia antolatua dago. Horretarako proiektorea alokatu behar izan dela eta honen kostua 920,09 eurotako dela. Alokatzeko gastu honen ordainketa Udalak bere gain hartzea proposatu du Alkateak.

Mahaikideek ERABAKI DUTE:

San Juanetako jaietarako alokatu behar den proiektuaren kostua Udalak bere gain osotasunean hartzea, onartzea.

14- ALTSASUKO ATXILOKETAREN ONDORIOZ, HAINBAT ERAKUNDE ETA PARTAIDEEK LUZATUTAKO MOZIOA AZTERTU ETA DAGOKIONA ERABAKI.

Alkateak, Altsasuko atxiloketaren ondorioz, hainbat erakunde eta partaideek luzatutako proposamenaren inguruan azterketa egin eta dagokiona erabakitzeko ondorioetarako mahairatzen du. Proposamenak hitzez hitz honela dio:

ALTSASUREKIN ELKARTASUNA

Idazki hau sinatzen dugunok zera plazaratu nahi dugu: urriaren 14an Altsasun jazotako gertakariak deitoratzen ditugun arren, Fiskaltzak eta Entzutegi Nazionalako Instrukzio Epaitegi Zentralak izandako jarrerarekin bat ez gatzela, aipatu gertakari horiek terrorismo delitu direla ulertzeagatik eta atxilotu eta auzipetutako zortzi pertsonetarikoa batzuei behin behineko neurri gisa baldintzagabeko badaezpadako espetxeratzea inposatu izanagatik. Erabaki hauek ezegokizat eta neurrigabetzat jotzen ditugu.

Zigor Kodearen 573. artikuluari helduz Altsasun gertatutako terrorismo delitua dela ulertzeak, espainiar ordenamendu juridikoak Zigor Kodea interpretatu eta aplikatzeko ezarritako irizpideen kontra egiten du. Zentzugabekeria da epaitzeko edota legeak egiteko beharrezkoa den sen on minimoa daukan edozein behatzaile objektibo eta inpartzialentzat egitate horiek terrorismo delitu kalifikatzea.



ABALTZISKETA

Auzipetze autoa irakurri ezkeru agerikoa da erabaki horrek ez dituela prozesu penaletan parte hartzen duten funtzionario eta autoritateek errespetatu behar dituzten objektibotasun eta inpartzialtasun printzipioak errespetatzen, ez dira eta ustezko erruztatuentzako kaltegarri edo mesedegarriak izan daitezkeen baldintza guztiak era argian jasotzen ez eta aintzakotzat hartzen (Auziperatze Kriminaleko Legearen 2. artikulua). Gertaerei Zigor Kodearen 573. artikulua aplikagarri zaiela erabakitzerakoan, zalantzan jartzen dugun auto hau susmoetan oinarritzen da batez ere, eta ez arrazoizko aztarnetan. Horren adibide izan daiteke izaera penala eduki dezaketen egitateak izendatzerako orduan autoak “ahalera” aditz aldia erabiltzea (“egon litezke”, “parte hartu lezakete”, etab.), susmoak baino zerbait gehiago direla frogatu dezakeen zerbaiti erreferentzia bat bera ere ez egin barik. Autoak ez ditu beste bertsio posibleak kontuan hartzen. Adibidez, ez du posible ikusten gertatutakoa gauean eman daitezkeen taberna borroka edo gatazkatzat jotzea, eta ez, egiten duen legez, “Alde Hemendik” mugimendu edo kanpainarekin zerikusia daukan gertaeratzat. Gure aburuz, gaur egun, giza arrazoimena era neurrigabean behartzen edo bortxatzen bada bakarrik jar daiteke horrelako gertaera bat terrorismoarekin harremanetan.

Zigor prozesua modu horretan izapidatzea ez zaio Zuzenbidezko estatu bati egokitzen, hain zuzen ere erabili diren lege interpretazio eta aplikazio irizpideak urruti daude zuzentasunetik. Horregatik, gizarte zibileko kide garen neurrian gure desadostasun kritiko argia agertzera behartuta gaude. Jarrera bortitz errefusgarriari ezin zaie erantzun erabat neurrigabe diren erabakiekin epaile eta auzitegien aldetik. Halako eraso bortitzei irakurketa interesatua eman izan zaie, gaiaren azterketa judiziala Entzutegi Nazionalaren jardura eremura eramateko intentzioarekin terrorismotzat joz. Horrek, berez, epaile naturalaren printzipioari kalte egiten dio. Hots, Nafarroako epaile eta auzitegiei dagokie bere lurralde eremuan gertatutako auziak ebaztea, eta ez Entzutegi Nazionalari. “Justiziaren” zona galtze adibide berri tamalgarri baten aurrean gaude. Eta horrek jarduketan dabilen organo judizialaren deslegitimazioa dakar, gizarte demokratiko batean nahitaezkoak behar luketen eskakizunetatik hura urrunduz. Egoera hau “etsaiaren zuzenbide penalaren” adibide berri bat da. Neurrigabeko erantzuna eman zaie inola ere aurreikusi gabeko egitate batzuei, soilik ulergarriak gertatutako ingurumariei erreparatuta, hots, taberna jakin bat, gabeko ordu



ABALTZISKETA

txikietan, eta behar bada baldintza fisikorik egokienetan ez zegoen jendea tarteko.

Horiek horrela, ikuturiko persona guztiekiko gure solidaritatea agertu nahi dugu, hala nola familiekin, Altsasuko hiritarrokina eta baita bere Udalarekin ere. Altsasuko hiritarrek eta baita bere Udalak ere bake eta bizikidetzaren aldeko konpromisoak agertu dituzte ezbairik gabe, inoz gertatu behar ez ziren egitate hauen bitartez moztuak izan direlarik.

Ikuspuntu juridikotik begiratuta ere kritikatzeko modukoa da epaitegien interbentzio hau. Izan ere ez da posible herritarren eskubideen berme izan behar duten Epaitegiak eurak izatea haien gutxiesle. Halako jokabideek instituzio demokratikoen erantzun argia merezi dute. Horregatik zuzentzen gatzaizkie EAE, Lurralde eta Udaletako agintariei, argi eta garbi adierazi ditzaten bai gertakari hauen gaineko balorazioa bai herritarrekiko, biktinekiko zein Altsasuko udalarekiko elkartasuna. Izan ere, hau guztia gizarte demokratikoen eta Zuzenbide Estatuaren printzipioekin eta funtzionamenduarekin bat ez datorren aldrebeskeria hutsa baino ez baita.

Mahaikideek ERABAKI DUT :

1. Gaiaren inguruan hausnartu eta dagokion erabakia hartzea onartzea.
2. Alkatearen proposamena, dagoen bezala onartutzat ematea.
3. Erabakiaren berri dagokion Erakundeetara bideratzea.

15- GALDERAK ETA ESKAERAK

Galdera eta eskaerarik ez da izan.

Eta besterik ezean, bilera amaitutzat eman zuen Alkateak 21:20etan.

Alkatearen O.E

Idazkariak